## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 TOKO ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 13 INBERTSIOAK TOKI ERAKUNDEETAN

# SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

GASTUAK

Programa hau hainbat azpiprogramatan banatzen da, hurrengoei dagozkienak:

**I - Inbertsiorako eta lurralde orekarako planak**

Azpiprograma honek honako planak biltzen ditu:

*1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana*

Apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kudeaketarako programa arautzen du. Foru Arau horrek Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei obra eta zerbitzuetarako emandako beste laguntza tresna batzuk arautzen ditu.

Aipaturiko arauan xedatutako lurralde eta sektoreetako helburuez gain, bere funtsezko oinarriak hauek dira:

1. Lurraldearen oreka.
2. Toki erakundeen arteko lankidetza.
3. Toki autonomiari zor zaion errespetua.

Honen partida ekonomikoa gutxienez Arabako Foru Aldundiak dauzkan baliabide ekonomikoen % 3,70 da, hala xedatzen baitu Foru Arauak eta bere funtsek hurrengo helburuek bete behar dituzte:

a) Lehen aipaturiko foru arauko 7. artikuluak zehazten dituen obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak.
b) Plan horretan sartzen diren proiektuen idazketa eta obren zuzendaritzak ordaintzeko dirulaguntzak.

*2.- Toki Erakundeen Inbertsioetarako Plan Bereziak.*

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 13 INVERSIONES EN ENTIDADES LOCALES

# MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

GASTOS

Este programa se divide, a su vez, en varios subprogramas, que responden a:

**I - Planes de Inversión y Equilibrio Territorial**

Este subprograma recoge los siguientes planes:

*1.- Plan Foral de Obras y Servicios*

La Norma Foral 14/1997, de 24 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios y de otros instrumentos de cooperación de la Diputación Foral de Alava a las obras y servicios de las Entidades Locales regula el Programa a través del cual se gestiona el Plan Foral de Obras y Servicios.

Además de los objetivos territoriales y sectoriales establecidos en la citada Norma, son sus principios inspiradores:

1. El equilibrio territorial.
2. La cooperación con las Entidades Locales.
3. El respeto a la autonomía local.

La partida que lo sustenta viene dotada con, al menos, el 3,70% de los recursos económicos disponibles por la Diputación Foral de Alava, según lo establecido por Norma Foral, y cuyos fondos se destinan a:

a) Subvenciones económicas para la financiación de las obras y servicios que quedan recogidas en el artículo 7 de la Norma Foral antes citada.
b) Subvenciones económicas por los honorarios de redacción de proyectos y direcciones de obras que sean incluidas en el Plan.

*2.- Planes Especiales de Inversiones de las Entidades Locales.*

A).- Lur azpiko Kanalizazioen Plan Berezia.

Izen honen barruan Toki Erakundeei azpiegiturak, energiaren hornidura, argiteria eta komunikazioen azpiegiturak eta abar lur azpian bideratzeko ematen zaizkien dirulaguntzak, hauek ez baititu indarrean dagoen 14/1997 Foru Arauak xedatzen eta beraz, beste partida bat behar dute.

B)- Inbertsio Plan Berezia.

Plan hau arautzen duen 14/1997 Foru Arauak, azpiegitura hidraulikoen lehenengo instalazioko obrak finantzatzea edo 25 urte edo gehiago duten sare horien berrikuntza esleitzen dizkio helburu gisa, eta Plan hau Obra eta Zerbitzuen Foru Planetik apartekoa eta horren osagarria dela ezartzen du.

3.- *Toki Erakundeak Finantzatzeko Funts osagarria*

Deialdiaren helburua "Toki Erakundeen Inbertsio" programaren bidez onartutako eta finantzatutako dirulaguntzak osatzea izan zen.

4.- *Probintziaren gasifikazioa.*

Partida honen helburua gas hornidurari dagozkion kanalizazioetatik datozen kostuak finantzatzea da, kanalizaziook lurra altxatzea edo enpresa banatzaileak finantzatutako gasifikazio kanalizazioak aldatzea, berritzea, hobetzea edo hedatzea dakartzatelako.

5.- *Auzokideen arteko Harremanen Sustapena*

Partida honen helburua toki erakundeek burututako obra eta ekipamendu konponketak finantzatzen laguntzea da, kontzejuetako obra horiek auzolan sistemaren bidez egiten badira. Hau da, erakundea osatzen duten bizilagunek eskulanak eta lanabesak, animaliak edo garraio-ibilgailuak jartzen badituzte.

**II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA**

**Azpiprogramaren helburua:** *Arabako landa*



A).- Plan Especial de Canalizaciones subterráneas.

Se recogen bajo este epígrafe las ayudas concedidas a Entidades Locales para el soterramiento canalizado de infraestructuras, suministros de energía, alumbrado, comunicaciones, etc, que, al no estar amparados por la Norma Foral 14/1997 vigente, requieren de una dotación específica.

B)- Plan Especial de Inversiones.

La Norma Foral 14/1997, que regula este Plan, le asigna como objetivos la financiación de obras de primeras instalaciones de infraestructuras hidráulicas o la renovaciones de dichas redes con una antigüedad igual o superior a los 25 años, atribuyendo al mismo una naturaleza independiente y complementaria al Plan Foral de Obras y Servicios.

3.- *Fondo complementario de inversiones de la Entidades Locales*

El objeto de la convocatoria fue complementar las subvenciones ya concedidas y financiadas con el programa “ Inversiones Entidades Locales

4.- *Gasificación de la Provincia.*

El objetivo de esta partida es la financiación de los costes derivados de las canalizaciones subterráneas relativas a suministros de gas que supongan remoción del suelo, o cambio, renovación, mejora o ampliación de las canalizaciones de gasificación financiadas por la compañía distribuidora.

5.- *Promoción de Relaciones Vecinales*

El objetivo de esta partida es ayudar la ejecución de obras y la reparación de equipamientos que realicen las Entidades Locales por el sistema de veredas de obras concejiles o auzolan, es decir con la aportación de mano de obra y herramientas, animales o vehículos de transporte de los habitantes que componen la entidad.

**II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

**Objetivo del subprograma :***Incrementar el nivel de*

*eremuetako biztanleen bizi kalitatea hobetzea, toki erakundeek egiten dituzten obra eta zerbitzuei laguntza emanez, Vitoria-Gasteizko Udalak egiten dituenei izan ezik.*

Helburu honen gauzatze maila hainbat ikuspuntutatik eta hainbat adierazle kontuan hartuta azter daiteke. Hala ere, helburu hau ezin daiteke epe motzera mugatu ez bere analisian ez bera lortzeko neurrien formulazioan. Hori dela eta, urte bateko ekitaldi bakar batean bete den ala ez egiaztatzea ia-ia ezinezkoa da, emaitzak epe labur edo ertainean islatzen dituzten aldagaiak direlako. Edonola ere, Arabako landa eremuetako biztanleek eskura dituzten azpiegituren eta ekipamenduen egoera nola garatu den aztertuta, baiezta daiteke helburuak betetzen direla, ditugun baliabideek ahalbideratzen duten neurrian.

1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana:

2008ko ekitaldirako aurrekontu partida 15.430.420,00 eurokoa zen.

2008ko programan, 2008ko aurrekontuko saldo erabilgarriaren (12.293.732,09 euro eman ziren datan) eta 2009rako konpromiso kredituaren (3.335.936,54 euro) kargurako laguntzak (Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 1eko 426/2008 Erabakia, 2008ko uztailaren 14ko 80. ALHAOn argitaratua) onartu dira, guztira 15.628.668,64 euro. Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 16ko 885/2008 Erabakiaren bidez (2008ko abenduaren 26ko 148. ALHAOn argitaratua), 2009rako konpromiso kredituaren kargurako 3.709.620,41 euro onartu dira.

*bienestar de la población rural alavesa, cooperando a las obras y servicios que ejecuten las Entidades Locales alavesas, con excepción de las realizadas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en la ciudad.*

El cumplimiento de este objetivo puede analizarse desde muy diferentes perspectivas y mediante multitud de indicadores. Sin embargo se trata de un objetivo que no puede circunscribirse al corto plazo, ni en su análisis ni en la formulación de las medidas para lograrlo, por lo que la constatación de su cumplimiento en un sólo ejercicio anual es prácticamente imposible, cuando se trata de variables que reflejan resultados en el medio/largo plazo, y no siempre cuantitativamente. De cualquier forma el análisis de la evolución de la situación de las infraestructuras y equipamientos de que se ve dotada la población rural alavesa son el referente que permite afirmar que los objetivos se cumplen, en la medida de las disponibilidades para poder alcanzarlos.

1.- Plan Foral de Obras y Servicios:

La dotación presupuestaria de la partida para el ejercicio 2008 ascendía a 15.430.420,00€.

En el Programa 2008, se han concedido ayudas (Acuerdo del Consejo de Diputados 426/2008, de 1 de Julio, publicado en el BOTHA nº 80, de 14 de julio de 2008) con cargo al saldo disponible del Presupuesto 2008 (12.293.732,09 Euros a fecha de concesión) y al crédito de compromiso 2009 (3.335.936,54 Euros), en total 15.629.668,63 Euros, y por Acuerdo del Consejo de Diputados 885/2008 de 16 de diciembre, publicado en el BOTHA nº 148, de 26 de diciembre de 2008, 3.709.620,41 Euros con cargo al crédito de compromiso 2009.

| EMATEA / CONCESIÓN | | LAGUNTZAREN ZENBATEKOA IMPORTE DE LAS AYUDAS |
|---|---|---|
| 1. | Diputatuen Kontseiluaren 426/2008 Erabakia, uztailaren 1ekoa (ALHAO, 80. zk., 2008ko uztailaren 14koa)<br>Acuerdo del Consejo de Diputados 426/2008, de 1 de julio, (BOTHA nº 80, de 14 de julio de 2008) | 15.629.668,63 |
| 2. | Diputatuen Kontseiluaren 885/2008 Erabakia, abenduaren 16koa (ALHAO, 148. zk., 2008ko abenduaren 26koa)<br>Acuerdo del Concejo de Diputados 885/2008, de 16 de diciembre | 3.709.620,41 |

| EMATEA / CONCESIÓN | | LAGUNTZAREN ZENBATEKOA IMPORTE DE LAS AYUDAS |
|---|---|---|
| | (BOTHA nº 148, de 26 de diciembre de 2008) | |
| | GUZTIRA / TOTAL | 19.339.289,04 |

Bestalde, Zerbitzuak aurrera jarraitu du aholkularitza tekniko, ekonomiko eta kontrolekoarekin obren gauzatze lanetan eta, orobat, aurreko planetan dirulaguntza jaso eta oraindik gauzatze fasean dauden obren segimenduarekin.

Por otra parte, por el Servicio se han seguido ejerciendo las tareas de asesoramiento técnico, económico y de control en la ejecución de obras, así como el seguimiento de las subvencionadas en Planes anteriores y aún en fase de ejecución.

2.- Toki Erakundeen Inbertsioetarako Plan Berezia.

2.- Plan Especial de Inversiones de las Entidades Locales.

Aurrekontuan plan honi eusten dion partidak 1.016.295,59 € eduki ditu 2008ko ekitaldian, eta 2009rako 986.694,75 €-ko kreditu konpromisoa ere egon da.

La partida que soporta presupuestariamente este Plan venía dotada en 2008 con total de 1.016.295,59 € y un crédito de compromiso para 2009 de 986.694,75 €.

2008ko programan dirulaguntza batzuk eman dira (Diputatuen Kontseiluaren 426/2007 Erabakia, maiatzaren 15ekoa; ALHAO, 80. zk., 2007ko uztailaren 14koa) 2008ko aurrekontuko saldo baliagarriaren (566.295,59 euro, eman direnean) eta 2009rako konpromiso kredituaren (650.965,76 euro) kargura; guztira, 1.217.261,35 euro.

En el Programa 2008, se han concedido subvenciones (Acuerdo del Consejo de Diputados 426/2008, de 1 de Julio, publicado en el BOTHA nº 80, de 14 de julio de 2007) con cargo al saldo disponible del Presupuesto 2008 (566.295,59 Euros a fecha de concesión) y al crédito de compromiso 2009 (650.965,76 Euros), en total 1.217.261,35 Euros.

Denetara 5 ekintzak, 4 herritan eragina dutenek, parte hartu dute partidaren funtsen banaketan.

Un total de 5 actuaciones, que afectan a 4 localidades, han participado de la distribución de fondos de la partida.

| Erakunde onuraduna<br>Entidad Beneficiaria | Dirulaguntza jasotako obra<br>Obras subvencionada | Dirulaguntzaren zenbatekoa<br>Importe subvención |
|---|---|---|
| Gopegiko AB / J.A. Gopegi | Gopegi urbanizatzeko proiektua, 1. Fasea<br>Proyecto de Urbanización de Gopegi 1ª fase | 76.887,50 |
| Izarrako AB / J.A. Izarra | Zoladura eta sareak Godamiturri kalean<br>Pavimentación y redes en calle Godamiturri | 12.381,92 |
| Menagarai-Beotegiko A. B.<br>J.A. Menagarai-Beotegi | Ur hornikuntza sarea eraberritzea, 3. Fasea<br>Renovación de red de abastecimiento de agua, 3º fase | 856.994,52 |
| Mendijur AB / | Ur azpiegiturak berritzea, elektrizitatea, argiteria eta telefonia | 187.093,54 |

| Erakunde onuraduna<br>Entidad Beneficiaria | Dirulaguntza jasotako obra<br>Obras subvencionada | Dirulaguntzaren zenbatekoa<br>Importe subvención |
|---|---|---|
| J.A.Mendijur | sareak lurpean sartzea, gas kanalizazioa eta bideak zolatzea<br>Renovación de infraestructuras de agua, soterramiento electricidad, alumbrado, telefonía, canalización gas y pavimentación de viales | |
| Mendijur AB / J.A.Mendijur | Ur azpiegiturak berritzea, elektrizitatea, argiteria eta telefonia sareak lurpean sartzea, gas kanalizazioa eta bideak zolatzea(2)<br>Renovación de infraestructuras de agua, soterramiento electricidad, alumbrado, telefonía, canalización gas y pavimentación de viales(2) | 83.903,87 |
| | Guztira / Total | 1.217.261,35 |

Beste alde batetik, ekitaldian hau ere egin zen: fase desberdinetan zeuden obren burutzapenaren jarraipena, azterketa eta kontrola, ziurtagirien ordainketen txostenak, proiektuak eskatzea, esleipenak izapidetzea eta abar.

Por otra parte, durante el ejercicio se procedió al seguimiento, supervisión y control de la ejecución de las obras en sus diferentes fases, informes de los abonos de las certificaciones, encargos de proyectos, tramitación de adjudicación, etc.

3.- Lurpeko Azpiegituren Plan Berezia.

3.- Plan Especial de Infraestructuras Subterráneas.

2008ko ekitaldian ondoren zehaztuko diren laguntzak onartu dira, partidan urte horretarako zainpetutako zenbatekoaren eta 2009ko konpromiso kredituaren kargura:

En el ejercicio 2008, con cargo a la consignación presupuestaria anual de la partida y a su crédito de compromiso para el 2009, se aprobaron las siguientes concesiones:

Guztira 24 dirulaguntza eman dira:

Se concedieron un total de 24 subvenciones por un importe total de:

| EMATEA / CONCESIÓN | | LAGUNTZAREN ZENBATEKOA<br>IMPORTE DE LAS AYUDAS |
|---|---|---|
| 1. | Diputatuen Kontseiluaren 426/2008 Erabakia, uztailaren 1ekoa (ALHAO, 80. zk., 2008ko uztailaren 14koa)<br>Acuerdo del Consejo de Diputados 426/2008, de 1 de Julio, (BOTHA nº 80, de 14 de Julio de 2008) | 1.200.000,00 |
| 2. | Diputatuen Kontseiluaren 885/2008 Erabakia, abenduaren 16koa (ALHAO, 148. zk., 2008ko abenduaren 26koa)<br>Acuerdo del Consejo de Diputados 885/2008, de 16 de diciembre (BOTHA nº 148, de 26 de diciembre) | 91.449,00 |

| EMATEA / CONCESIÓN | LAGUNTZAREN ZENBATEKOA<br>IMPORTE DE LAS AYUDAS |
|---|---|
| Guztira / Total | 1.291.449,00 |

Ezarritako helburuen eta aurrekontu kontsignazioen aplikazioen arabera, gauzatze maila egokia izan da, bai kopuruz eta bai kalitatez.

El grado de cumplimiento, de acuerdo con los objetivos establecidos y a tenor de las aplicaciones de las consignaciones presupuestarias, puede ser considerado como satisfactorio, tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo.

4.- Toki Erakundeak Finantzatzeko Funts osagarria

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 3ko 57/2008 Foru Dekretuaren bidez, Arabako toki erakundeei inbertsioen funts osagarriaren dirulaguntzak emateko oinarri-arauak onartu ziren.

Partidaren hasierako hornidura 7.652.478,73 eurokoa izan zen, baina Arabako toki erakundeen titulartasun publikoko ondasunetan gertatutako kalteetarako 343.107,88 euroko laguntzak esleitu ondoren, partidaren saldo baliagarria 7.309.370,85 eurokoa izan zen. Osorik banatu ziren lehentasun ordena eta dirulaguntzen koantifikazioa zehazteko behar ziren azterketak egin ondoren.

4.- Fondo Complementario de Inversiones en Entidades Locales

Mediante Decreto 57/2008 del Consejo de Diputados de 3 de junio se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las ayudas del fondo complementario de inversiones a las Entidades Locales de Alava 2008.

La dotación inicial de la partida fue 7.652.478,73 Euros, aunque tras la asignación de ayudas para los daños producidos en bienes de titularidad pública de las entidades locales alavesas por importe de 343.107,88 Euros, el saldo disponible de la partida resultó en 7.309.370,85 Euros, que se repartieron en su totalidad una vez hechos los estudios pertinentes para determinar el orden de prelación y la cuantificación de las subvenciones.

5.- Lurraldearen gasifikazioa

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 3ko 58/2008 Foru Dekretuaren bidez, Arabako toki erakundeei 2008 programari dagozkion gasifikaziorako dirulaguntzak emateko oinarri-arauak onartu ziren.

2008ko ekitaldirako partidaren hornidura 500.000,00 eurokoa izan zen; haietatik ekitaldian 115.570,53 euro zuritu ziren, eta emandako justifikazioei dagokienez helburuaren gauzatze maila egokia izan zen.

5.- Gasificación del territorio

Mediante Decreto 58/2008 del Consejo de Diputados de 3 de junio se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las ayudas a la gasificación a las Entidades Locales correspondientes al programa 2008.

La partida se dotó con 500.000,00 euros para el ejercicio 2008, de los cuales se justificaron a lo largo del ejercicio 115.570,53 euros, siendo el cumplimiento de los objetivos satisfactorio en lo relativo a las justificaciones aportadas.

6.- Auzokideen arteko Harremanen Sustapena

Apirilaren 26ko Diputatu Kontseiluaren 34/2008 Foru Dekretuaren bitartez, Auzo Harremanak Sustatzeko 2008ko Programaren barruan Arabako

6.- Promoción de Relaciones Vecinales

Mediante Decreto del Consejo de Diputados 34/2008 de 29 de abril, se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las

Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarriak arautu ziren.

Hasieran partidaren hornidura 328.180,74 eurokoa izan zen, baina Diputatuen Kontseiluaren urriaren 7ko 640/2008 Erabakiaren ondoren, 225.339,83 euroko aurrekontu transferentzia onartu zen.

Ekitaldian 466.708,50 euro ordaindu dira laguntzetan, eta helburuen gauzatze maila egokia da, bai ikuspuntu kuantitatibotik bai kualitatibotik.

**II – Landa ongizatearen hobekuntza**

Azpiprograma honek batez ere obra txikiak egiteko laguntzak eta ekitaldian aurrekontuan sartu ziren izendun dirulaguntzak biltzen ditu.

*1.- Obra txikiak egiteko laguntzak*

Ekitaldi honetan partida honen helburua funtzio anitzeko eraikinak eraikitzeko lanak finantzatzea da, Arabako udalerri guztiek kirol, astialdi jarduerak, bilera mota oro, hitzaldiak, kultura eta politika ekitaldiak, etab. burutzeko mota horretako lekua izan dezaten; azkenean partidarako 1.250.000 euro jarri ziren eta haietatik ekitaldian 1.100.912,69 euro ordaindu ziren.

*2.- Dirulaguntza izendunak*

Ekitaldian 23 dirulaguntza izendun eman ziren frontoiak, Haur Eskolak, erabilera anitzeko eraikinak, plazak, funtzio anitzeko zentroak, zeharkaldien zoladurak, kiroldegiak, etab. eraikitzeko; haietatik 18 ordaindu ziren justifikatu ondoren, eta helburuen gauzatze maila egokia da bai ikuspuntu kualitatibotik bai kuantitatibotik.

**III- Toki erakundeen garapena**

Programaren helburu orokorra *Arabako Toki Erakundeek euren funtzionamenduan eta*

Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2008 de Promoción de Relaciones Vecinales.

La partida se dotó inicialmente con 328.180,74 Euros, aunque tras Acuerdo del Consejo de Diputados 640/2008 de 7 de octubre se aprobó una transferencia presupuestaria por importe de 225.339,83 Euros.

A lo largo del ejercicio se han abonado 466.708,50 Euros en ayudas, siendo el cumplimiento de los objetivos satisfactorio, tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo.

**II – Mejora del bienestar Rural**

Este subprograma engloba principalmente las Ayudas de ejecución de Obras Menores y las subvenciones nominativas que se presupuestaron a lo largo del ejercicio.

*1.- Ayudas de Ejecución de Obras Menores*

Esta partida tiene como objetivo durante este ejercicio la financiación de obras de construcción de edificios multifuncionales de modo que todos los municipios alaveses dispongan de un local de estas características donde poder desarrollar usos deportivos, de ocio, reuniones de todo tipo, conferencias, actos culturales y políticos, etc., dotándose finalmente la partida de 1.250.000 Euros, de las que se abonaron 1.100.912,69 Euros a lo largo del ejercicio.

*2.- Subvenciones nominativas*

Se concedieron 23 subvenciones nominativas durante el ejercicio para la construcción de frontones, Haur Eskolak, edificios multiusos, plazas, centros multifuncionales, pavimentación de travesías, polideportivos, etc…de las cuales se abonaron 18 tras la correspondiente justificación, siendo el grado de cumplimiento de los objetivos satisfactoria tanto desde el punto de vista cuantitativo como del cualitativo.

**III- Desarrollo Entidades Locales**

El objetivo generalista que persigue esta partida queda establecido como *el logro del óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización, de las Entidades*

*antolakuntzan erabateko garapena lortzea* da.

Azpiprograma horrek biltzen dituen jarduerak zenbatzen zaila da, lortutako helburuei dagokienez. Oro har, esan daiteke helburuak bete direla, aurrekontuetako zuzkidurek ahalbidetu duten heinean.

Egindako jardueren artean hauek azpimarra daitezke:

- Arabako Kontzejuen Elkarteari laguntza ematea, zenbait gasturi aurre egin ahal izateko: langileek eta funtzionamenduak sortzen dituztenak.
- Aurrekontuetan zuzeneko eragin ekonomikorik ez duten bestelako ekintzak ere aipa daitezke.
- Izen aldaketei, banantzeei eta udal eta kontzejuak sortzeei buruzko espedienteak izapidetzea.

Salbuespenez, Berganzoko Administrazio Batzordeak Arabako Foru Aldundiari lanak kudeatzeko eskatu zionez, Arabako Lanak-ei Batzorde horren lanak egiteko eskatu zitzaion. Zenbatekoa 103.000 eurokoa izan zen.

Kontuan izanik zehazten den helburua, hau da, Arabako toki erakundeen funtzionamendua eta antolakuntza ahalik gehien garatzea, helburuaren betetze maila aztertzeko honako hauek hartu behar dira kontuan: batetik, ekintzak aurreikusitako ekintzekin bat etorri diren; bestetik, toki erakundeek adierazitako beharrei kasu egin zaien eta programan ezarritako helburuekin lotu diren. Bada, betetze maila altua izan da bietan.

**IV – <u>Laguntza landa turismoari eta tokiko parkeei</u>**

Hau da azpiprograma honen helburua: *Arabako biztanleek eta bisitariek aisialdirako tokian tokiko parkeez gozatzea.*

Arlo honetan jarduerak funtsezko bost ardatzen inguruan egiten dira:

- Aisialdirako tokian tokiko parkeetako zaborrak biltzeko zerbitzuaren kudeaketa.
- Aisialdirako tokian tokiko parkeak mantentzea.

*Locales alavesas*.

Las actividades que engloba este subprograma son de difícil cuantificación en lo referente a logro de objetivos. En líneas generales puede afirmarse que los objetivos se han cumplido en la medida en que las dotaciones presupuestarias lo han hecho posible.

De entre las acciones desarrolladas cabe destacar :

- Concesión de ayuda a la Asociación de Concejos de Alava para hacer frente a diversos gastos de personal y otros inherentes a su funcionamiento.
- Además, pueden citarse otras acciones sin repercusión económica presupuestaria directa.
- Tramitación de expedientes de cambio de denominación, así como de desanexiones y constituciones a niveles municipal y concejil.

Excepcionalmente, debido a la petición de la Junta Administrativa de Berganzo de que la Diputación Foral de Álava llevase a cabo las gestiones de las obras, se decidió encomendar a Arabako Lanak la realización de las obras en dicha Junta por importe de 103.000 Euros.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es el óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización de las Entidades Locales alavesas, el cumplimiento de los objetivos viene dado no sólo por la adecuación de las acciones llevadas a cabo con las previstas, sino también en tanto en cuanto fueron atendidas las necesidades manifestadas por los Entes Locales, y relacionadas con los objetivos establecidos en el Programa. En ambos sentidos, ha de afirmarse que el grado de cumplimiento puede considerarse alto.

**IV - <u>Apoyo al Turismo Rural y Parques Locales</u>**

Este subprograma responde al objetivo de *disfrute por la población alavesa y visitantes, de los Parques Locales de Esparcimiento*.

Las acciones en este área giran en torno a cinco ejes fundamentales:

- La gestión del servicio de recogida de basuras de los Parques Locales de Esparcimiento.
- El mantenimiento de los Parques Locales de

Esparcimiento.

- Aisialdirako tokian tokiko parkeak berritzea.
- Aisialdirako tokian tokiko parkeak sustatzea eta hauen zabalkundea egitea.
- Aisialdirako tokian tokiko parkeetarako altzariak erostea.

Ekitaldian bidezko ekintzak burutu dira hainbat koadrilarekin eta Gorbeialdeko Partzuergoarekin haien lurraldeetako edo inguruetako tokiko parkeetako zaborrak biltzeko xedearekin sinatutako hitzarmenak eta kudeaketa aginduak berritzeko edo luzatzeko, zerbitzu merkeagoa eta eraginkorragoa lortzeko helburuarekin.

Tokiko parkeen mantenu lanei dagokienez, urriaren 31n Toki Administrazioaren eta Toki Erakundeen Foru Diputatuaren Aginduak "Viveros Perica, S.A." enpresarekin zegoen kontratuari emandako luzapena bukatu zen. Data iritsita eta 2009ko ekitaldian egingo den esleitze berria deitu arte, tokiko parkeen mantenu zerbitzuak "Ariatza S.L." enpresari kontratatu zitzaizkion.

2008an lan handiak egin ziren Estibalitzeko tokiko atseden parkea hobetzeko eta berritzeko; besteak beste, antzinako metalezko erretegien ordez parrilla eta txapazko zarratze sistema dauzkaten barbakoak, 14 mahai berri eta lau barraskilo eta perretxiko bat jarri ziren, zurez eginak ingurumenean hobeto txertatzeko.

Amurrioko San Roke parkean altzairu herdoilgaitzezko parrillak konpontzeko eta jartzeko lanak ere egin ziren.

"Arlan" enpresarekin Lurralde Historikoan urtean diren erromerietan komun eramangarriak jartzea kontratatu zen.

Arabarrek eta bisitariek Arabako tokiko atseden parkeak gozatzeko helburuaren gauzatze maila

- La renovación de los Parques Locales de Esparcimiento.
- La promoción y publicidad de los Parques Locales de Esparcimiento.
- La adquisición de mobiliario para los Parques Locales de Esparcimiento.

Durante el presente ejercicio se realizaron las acciones oportunas para la renovación o prórroga de Convenios-Encomiendas de gestión con diversas Cuadrillas, así como con el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, para la realización del servicio de recogida de basuras en los Parques Locales ubicados en sus localidades o en las proximidades de ellas, en aras a lograr mayor economía y mejorar la efectividad en la prestación del servicio.

En lo que respecta a los trabajos de mantenimiento en los Parques Locales, con fecha 31 de Octubre finalizó la prórroga que mediante Orden Foral del Diputado de Administración Local y Entidades Locales prorrogó el contrato existente con "Viveros Perica,S.A.". Llegada esa fecha y hasta la convocatoria de la nueva adjudicación que se realizará en el ejercicio 2009, se contrataron los servicios de mantenimiento de los parques locales a "Ariatza S.L.".

En el 2008 se realizaron importantes trabajos para la mejora y renovación del Parque Local de Esparcimiento de Estíbaliz, consistentes entre otros en la sustitución de los antiguos asadores metálicos por barbacoas con parrilla y chapa de cerramiento, así como la instalación de 14 nuevas mesas, y la colocación de cuatro caracoles y un perretxiko, construidos en madera para conseguir una mayor integración en el medio.

También se realizaron operaciones de reparación e instalación de parrillas de acero inoxidable en el parque de San Roque, en Amurrio.

Se contrató con "Arlan" la instalación de aseos portátiles en las diferentes romerías que tienen lugar a lo largo del año en el Territorio Histórico.

El grado de cumplimiento del objetivo de lograr el disfrute de los parques locales de esparcimiento

altutzat jo daiteke, parkeetako altzariak berritzeko eta modernizatzeko neurriak hartu eta haien mantenua eta zabor biltzea behar bezala burutu baitziren.



alaveses por parte alaveses y visitantes puede considerarse alto, en la medida que se llevaron a cabo medidas de renovación y modernización del mobiliario de los parques y se llevó a cabo de forma satisfactoria el mantenimiento y la recogida de basuras de los mismos.